

2023. URTEKO JARDUERA MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	3
2. HARREMANAK ERAKUNDEEKIN	6
3. 2023AN BIDERATUTAKO PROIEKTU ETA EKIMENAK	8
4. KATEDRAK ANTOLATUTAKO JENDAURREKO EKITALDIAK.....	12
5. KATEDRAKIDEEK EMANDA KO IKASTARO ETA HITZALDI AK, ETA KONGRESUETAN AURKEZTUTAKO KOMUNIKAZIOAK.....	14
6. KATEDRAKO GRADUONDOKO JARDUERAK	19
7. KATEDRAREN PRESENTZIA HEDABIDEETAN	21
8. KATEDRAKIDEEK JASOTAKO SARIAK ETA AITORTZAK	23
9. KATEDRAKIDEE N ARGITALPENAK.....	24

1. AURKEZPENA

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (MHOUK) Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta UNESCOren artean sinatutako hitzarmenaren emaitza da. Hitzarmena 2006 sinatu eta Katedrak 2007an eman zion hasiera bere ibilbideari Itziar Idiazabalen ardurapean. Katedraren sorrera UNESCO Etxeari zor zaio (orain, UN Etxea); erakunde horren gidaritzapean, UNESCO Parisek eskatuta, munduko hizkuntzei buruzko txostena (Martí et al., 2006) burutu zen 1996 eta 2005 bitartean, ondoren hainbat hizkuntzatan itzuli zena. 1998an Eusko Jaurlaritzaren eta UNESCOren artean sinatutako memorandumari esker gauzatu ahal izan zen proiektu hori. Harrezkero, UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak eta UNESCO Etxeak elkarlanean jarraitu izan dute, bereziki garapenerako proiektuetan.

2021ean UPV/EHUren eta UNESCOren arteko hitzarmena berriztatu zen beste lau urtez eta Katedraren zeregina Hezkuntzaren alorrera ere atxikitzea onartu zuen UNESCOk. Horri esker, Katedrak jarraipena eman ahal izan dio munduko hizkuntzen egoerari buruzko azterketei, eta bereziki, modu monografikoagoan, galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan egiten den lanari eta garapenerako hizkuntza lankidetzari. Horretaz gain, Katedraren borondatea da hezkuntza baloreak eta prestakuntza inklusibo eta justua sustatzea eta etengabeko ikaskuntza bultzatzea, 2030eko Garapen Iraunkorrerako 4. helburuari ekarpena egiteko, baina baita hizkuntzaren zeharkakotasuna eta garrantzia aldarrikatzeko Garapen Iraunkorrerako Helburu (GIH) guztietan ere.

Katedraren helburua da, beraz, bertako eta kanpoko hizkuntza ondarea aztertu, deskribatu eta ezagutaraztea eta munduko hizkuntzen ondarea ezagutzera ematea. Horretarako, ikerketa, formazioa, informazioa eta dokumentazio-lanak garatzen ditu, betiere, arreta berezia eskainita hizkuntza gutxituei, Euskal Herriko eta euskararen biziberritzearen ikuspegiak aintzat hartuta.

Katedra, gaur egun, arduradunak, teknikari batek, kide aktiboek, Batzorde Tekniko Iraunkorrek eta Aholku Batzordeak osatzen dute.

Arduraduna

- Ines M^a Garcia Azkoaga, Euskal Filologian Doktorea eta eleaniztasunean eta hizkuntzen irakaskuntzan aditua. 2018an hartu zuen Katedraren ardura UPV/EHUko errektoreak izendatuta.

Teknikari-ikertzailea

- Lamia Filali-Mouncef Lazkano, Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua. 2023ko apirilaren 16ra arte Katedran lanean ibilitako kontratupeko ikertzailea.

- Amaia Izkue Daroca, Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua. 2023ko ekainean Katedran lanean hasitako kontratupeko ikertzailea.

UPV/EHUko katedrakide aktiboak

- Ibon Manterola (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen jabeakuntzan eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Leire Diaz de Gereñu Lasaga (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketetan doktorea, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.

Batzorde Tekniko Iraunkorra

- Itziar Idiazabal (UPV/EHU) doktorea, ohorezko irakaslea-ikertzailea, eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea.
- Andoni Barreña (Garabide Elkartea), Euskal Filologian doktorea eta hizkuntza aniztasunean aditua.
- Margareta Almgren, Hizkuntzalaritzan doktorea eta UPV/EHUko ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea.
- Mikel Mendizabal (Garabide Elkartea), irakaslea eta hizkuntza eta biologia-aniztasunean ikertzailea.
- Ane Ortega Etcheverry (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntzalaritzan doktorea, besteak beste, ELEBILAB taldeko ikertzailea eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea), Soziolinguistikan doktorea, soziolinguistika irakaslea eta soziolinguistika eta hizkuntzen didaktikan aditua.
- Arkaitz Zarraga (Basauriko Euskaltegia), Euskal Filologian lizentziatua eta euskararen didaktikan aditua.
- Beñat Garaio (Soziolinguistika Klusterra), Hizkuntzalaritzan doktorea eta ELEBILAB taldeko ikertzaile kolaboratzailea. Euskararen Aholku Batzordeko "Euskara Sustatzeko Ekintza Plana" (ESEP) berritzeko aditu-taldeko kidea (2022tik). Arabako Foru Aldundiak sortutako Garapen Iraunkorraren aldeko Arabako Aliantzako kidea 2022tik.
- Maite Garcia Ruiz (Begoñako Andra Mari Irakasle Eskola), Hizkuntza eta Filologia programako doktorea.
- Paula Laita Pallares (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzan doktorea.

- Anik Nandi (Euskal Herriko Unibertsitatea). Soziolinguistikan doktorea eta doktoretza osteko bekaduna UPV/EHU.

Doktore osteko bekaduna

- Maria Montroy Ferré, Margarita Salas doktoretza osteko programako bekaduna.

Aholku Batzordea

- Xabier Aierdi (UPV/EHU), Soziologia katedraduna.
- Maria Jose Azurmendi (UPV/EHU), Soziolinguistika katedraduna.
- Maitena Etxebarria (UPV/EHU), Hizkuntzalaritza Orokorreko katedraduna.
- Patxi Goenaga (UPV/EHU), Euskal Filologia katedraduna.
- Nieves Fernandez Vicente, UNESCO Etxearen lehendakaria.
- Arantza Acha, UNESCO Etxearen zuzendaria.
- Belen Uranga (Soziolinguistika Klusterra), Euskal Filologian Lizentziatua eta hizkuntza aniztasunean aditua.

2. HARREMANAK ERAKUNDEEKIN

Sortu zenetik, Katedra etengabe dihardu elkarlanean izaera ezberdinetako erakunderekin. Lankidetzak horiek funtsezkoak dira proiektuak bideratzeko eta, besteak beste, babes ekonomikoa bermatzeko.

Gure proiektuei babes ekonomikoa eman izan dietenen artean daude Azkue Fundazioa eta Berrizko Udala, baina azken urtean diru-laguntza horiek galdu ditugunez, hauek dira egun babesa ematen diguten erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS);
- Elorrioko Udala: 2019 berriztatu zen beste 4 urtez udal honekin dugun hitzarmena, lehenengo aldiz 2014an sinatu zena.

Beste erakunde batzuekiko harremana eta lankidetzak ere ezinbestekoa da proiektuak eta egitasmoak aurrera eramateko. Aipatzekoak dira hurrengo hauek:

- UN Etxea, 1991n sortu zen, eta gure Katedrari babes instituzionala ematen dio sortu zenetik (2007). UNESCO Etxearen asmoa UNESCO erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak-ildoak euskal esparruan zabaltzea da. Egund 132 bazkide ditu, erakundearen gizarte-oinarria osatzen dutenak.
- Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), bere izenak dioen bezala, bere baitan biltzen dituena Euskal Herrian dauden UNESCO izendapena daramaten askotariko erakundeak (ikastetxeak, fundazioak, katedrak...)
- Garabide Elkarteak, gobernu kanpoko erakundea 2013tik daramagu kolaborazioan Garabiderekiko hizkuntza kooperazio proiektutan. Cauca, Kolonbiako hizkuntza kooperazio proiektuarekin jarraitzen dugu gaur egun haiekin batera.
- Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko
- Euskal Gorrak (Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioa), EAEko Gor helduen Elkarte guztien koordinatzaile eta ordezkari moduan jokatzen du eta euskal lurralde osoan pertsona gorrek oinarrizko zerbitzuak jaso ditzaten bermatzera bidean lan egiten du. 2020an sinatu da kolaborazio hitzarmena.
- Asociación Africanista Manuel Iradier, gobernu kanpoko erakundea. 2014 urtean sinatu zen kolaborazio hitzarmena.
- Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizen kokatuta dagoena eta euskararen zein hizkuntzaren aniztasunaren berri zabaltzeko lana egin duena 2022ra arte.
- UPV/EHUko UNESCO Katedrak:

- Komunikazioaren eta Hezkuntza Balioen UNESCO Katedra
- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruz UNESCO Katedra
- Kultur Paisaiak eta Ondarearen UNESCO Katedra
- Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
- Ayuda en Acción, gobernu kanpoko erakundea: Erakunde honekiko harremanak 2018an hasi ziren Mexikoko tseltal komunitateak haiekin harremanetan jarri zirenean tseltal hizkuntza biziberritzeko.
- Cooperación Bierzo Sur, gobernu kanpoko erakundea: 2022an hasi gara haiekin kolaborazioan, Santo Tomé eta Principeko forro hizkuntzaren biziberritzean lankidetzan bideratzeko.

Horretaz gain Katedrak harreman estua du Genevako Unibertsitateko hizkuntzen didaktikako adituekin eta Gales, Irlanda eta Frantziako hainbat aditurekin, hezkuntza eleaniztunaren eta hizkuntza gutxituen inguruan dihardutenak.

3. 2023AN BIDERATUTAKO PROIEKTU ETA EKIMENAK

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak (MHOUK) honako proiektuak garatu ditu 2023. urtean zehar:

1) Hizkuntza-lankidetzak

- *Garabide elkartearekin*

Landa-lana Caucan:

Aurten ere landa-lanari heldu ahal izan diogu. Horrela, katedrakideek aurreikusitako bidaiak egin dituzte Kolonbiako Caucara uztailan eta abenduan. Bertan bi lan nagusi egin zituzten: lehenik, Popayanen egon ziren CRICek antolatutako topaketa batean, 10 herritako arduradun eta ekintzailerekin batera hizkuntzen biziberritzearen inguruko hitzaldiak ematen. Katedrakideek zehazki soziolinguistikaz eta helduen eskolez hitz egin zuten, nasekin izandako esperientzian oinarrituta. Bigarrenik, Toribion, talde bat gidatu zuten 6 egunez. Bertan unitate guztiak erreparasatu eta landu zituzten. Horrez gain, talde motorrarekin E'DZ FXIDX (A2ko materiala) liburuaren lehen bost unitateak landu zituzten eta beste hamabosten zirriborroa egin zuten, zeinak urtean zehar lantzeko oinarria izan baitira.



1. Ane Ortega katedrakidea Caucako eskola batean.

Ikas-materiala prestatzea:

Katedra eta Garabideren artean, Hizkuntza Indigenak Ama Lurra zaintzen proiektuari lotuta, ikas-material berria eta egunkari bat sortu dute. Alde batetik, *Hizkuntza Indigenak Ama Lurra* zaintzen liburuxkaren bigarren edizioa egin da; oraingoan QR bat dut ipuinak jatorrizko hizkuntzan entzun ahal izateko. Bestalde,

liburuxkari eta hizkuntza indigenari lotutako ariketa-koadernoak ere egin dugu euskaraz, klaseetan ikasleekin gaia landu ahal izateko. Azkenik, egutegi indigena egin da. Material hori guztia aurkezteko ekimena egin zen Bilboko Euskararen Etxean, Museoen egunean.

- Bierzo Sur Gobernuz Kanpoko Erakundearekin

María Montroy katedrakidea 2023ko udan Santo Tomé eta Principera joan da Cooperación Bierzo Sur GKEarekin. Iaz egindako proiektuarekin jarraitu nahi zuten komunitateko heldu eta gazteen gertutasuna lortzeko eta aldi berean forroz hitz egiten duten pertsona nagusien ongizatea bultzatzeko. Horretarako, bikoizketa eta antzerki-tailerrak antolatu zituzten.

Hala ere, aurtengo udan ezin izan dute aurreko urteetako proiektuekin jarraitu eta beste motatako lanak egin behar izan dituzte. Alde batetik, adineko pertsonen egoerari buruzko azterketa kualitatiboa egin dute, ikusteko proiektuak zer neurritan egiten diren on. Bestalde, beste komunitateetako liderrekin eta GKE batekin elkarrizketak egin dituzte etorkizunean proiektua haiekin egin ahal izateko.

2) UNESCOk eta UN Etxeak sustatutako ekimenetan parte hartzea

UNESCOk eta UN Etxeak sustatutako ekimen hauetan hartu du parte Katedrak:

-Katedren topaketa Cordoban

Urriaren 16 eta 17an MHO Unesco Katedratik Cordoban izan ginen Espainiako Katedren topaketetan parte hartzeko, eta gure Katedraren jardunaren berri emateko aukera izan genuen. Dr. Keith Holmes (Research Coordinator of the UNITWIN/UNESCO Chairs Programme) izan zen bertan. Batik bat, hezkuntza izan zen topaketen ardatza. Azkenik, Espainiako Katedren artean Cordobako Adierazpena sinatu genuen, UNESCO eta beste erakunde zein agintari batzuei zuzendutako 10 puntuko txostena.



2. Katedren topaketa Cordoban

- **Factoría 4.7 eta RCE (Regional Centre of Expertise) proiektuak**

RCE lehenengo bi batzordeak

2023ko ekainean I Batzar orokorra egin zuten Zumaian. GJHei buruzko hitzaldiak egin ziren eta guk, zehazki, 18. helburuaren aurkezpena egin genuen. Herrera, oro har, positiboa izan zen. II. Batzar Orokorra abenduaren 19an izan zen, eta azken hilabeteetako 18GJHen eguneraketa egin genuen. Azkenik, RCE Basque-Country Navarre sareak RCE sareen topaketa Euskal Herrian egitea aurreikusi du 2024an.

4.7 Faktoria plataforma

RCEk sortutako [online plataforma](#) da, sarearen parte diren erakundeek GJHei lotutako baliabideak eta materialak igo eta denon artean partekatzeko. Webgune bat prestatu dute, baina oraindik ez dago landuegia.

3) Agendaren 18. helburuaren sustapena

Lehendakaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak deitutako "kontraste taldean" hartu du parte Katedrak 18. helburuaren gorpuzte gogoetarako. Elhuyarri esleitu zioten prozesuaren idazkaritza teknikoa, eta euskalgintzako eragile ezberdinek hartu zuten parte egin ziren bi bileratan.

2023ko azaroaren 13an, REDSek (Red Española para el Desarrollo Sostenible) deituta, 17+1 helburua sustatzen duten beste erakunde batzuekin bildu ginen Bilbon. UN Etxeak eta Jaurlaritzak 18. helburuaren jarraipen-txostena (*Incorporación del Objetivo 18 a la agenda Euskadi Basque Country 2030*) prestatzen ari dira, 18. helburuak agendari egiten dion ekarpenak jasotzeko.

Ekitaldi horretan jakinarazi ziguten UN Etxetik eta Eusko Jaurlaritzatik prozesu parte-hartzailea bideratuko dutela erakundeen eskutik datu horiek jasotzeko, eta dagoeneko harremanetan jarri dira gurekin kontraste-txostena prestatzen hasteko.

4) HIGA

2023ko uztailaren 17tik 21era Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen 4. Topaketa egin zen Gasteizen. Bertan mundu zabaleko hizkuntza gutxituetako ehun gazte baino gehiago elkartu ziren, guztien artean 70 hizkuntza baino hizkuntzatakoak. Katedrak topaketa egin ahal izateko laguntza emateaz gain, uztailaren 20an bikoizketa tailerra egiteko materiala sortzeaz arduratu zen. *Una mà de contese*ko animazioetako bat (ondoren azalduko dugu zertan datzan proiektua) hizkuntza gutxituetara itzultzeko eta bikoizteko tailerra antolatu genuen, hain zuzen ere. Besteak beste, hizkuntza hauetan bikoiztu zen animazioa: franko-probentzera, ladinoa, nahuat, saami eta tyapera.

Guztira 75 parte-hartzaile izan ziren tailerrean, eta horietatik 12k animazioa bikoiztu zuten. Dena den, asko geratu ziren bikoizketa egin ezinik denbora faltagatik.


5) Una mà de contes

Katedrak eta TV3 telebista-kateak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute bost animazioren bidez hizkuntza eta kultura aniztasunaren ezagutza sustatzeko. *Una mà de contes* programan, 2023ko edizioan, kultur tradizio ezberdinetan eta tokiko hizkuntza gutxiagotueta oinarritutako bost kapitulu ekoitziko ditu. Bost ipuinen dokumentazioa, hautaketa eta jarraipena egiteko UPV/EHUko aholkulari eta espezialisten taldeak eta *Una mà de contes* programako talde tekniko eta artistikoa elkarlanean aritu dira. Kapituluak katalanez sortu eta euskara eta gaztelaniara bikoiztu dira. HIGAn eskainitako bikoizketa-tailerra baliatuta, animazioetako bat munduko bost hizkuntza gutxitutan ere bikoiztu da.

6) Erakusketak

Hizkuntza indigenak Ama Lurra Zaintzen.

- Irakasleen Euskarazko Prestakuntza Zerbitzua (IRALE). Gasteizen, otsailaren 16tik martxoaren 2ra.
- Durangoko Udala. Durangon, apirilaren 21etik maiatzaren 2ra.
- Errenteriako Udala. Errenterian, maiatzaren 15etik maiatzaren 21era.
- Bilboko Euskararen Etxean. Garabiderekin batera sortutako materiala aurkezteaz gain, Hizkuntza Indigenak Ama Lurra zaintzen erakusketa jarri genuen Euskararen Etxean maiatzaren 18tik ekainaren 2ra arte, Museoen Egunaren harira. Mikel Mendizabalek bisita gidatua egin zuen egun horretan. 40 lagun inguru bildu ziren aurreneko egun horretan.
- Bortziriko Euskara Zerbitzua. Beran, ekainaren 5etik ekainaren 9ra.
- Euskararen astea. Gipuzkoako Campusak antolatutako Euskararen Astearen harira, Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen erakusketa jarri genuen Carlos Santamaría Zentroko Txillardegia aretoan. Horrez gain, bisita gidatua ere egin genuen. Erakusketa azaroaren 27tik abenduaren 29ra egon zen ikusgai. Oso zaila da jakitea guztira zenbat bisitari izan ziren ez zelako horren erregistrorik eraman.



3. Erakusketa Carlos Santamaría liburutegian

4. KATEDRAK ANTOLATUTAKO JENDAURREKO EKITALDIAK

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna

2023ko Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunean, hau da, otsailaren 21ean, Katedratik zinema-maratoia eta horri lotutako mahai-ingurua antolatu genuen. Mundu zabaleko hizkuntza indigenetako dokumental hauek jarri genituen:

- *Voices on the rise: Indigenous Language Revitalization in Alberta* (Kanada)
- *Video diary of sami Liselotte Wajstedt* (Suedia)
- *La parole assassinée - Ar Gomz Drouklazhet* (Bretainia)
- *Mnech dizdea* (Mexiko)
- *Batzuk. Euskararen lau aurpegi* (Euskal Herria)

Horrez gain, 4 adituk (Rosa María Rojas Torren, Morgane Lincy Fercot, Goiatz Oiartzabal eta Paula Laitak) parte hartu zuten hurrengo gaiak jorrazteko: zer dakar hizkuntza indigena ama-hizkuntza modura izatea eta hezkuntzaren garrantzia hizkuntza gutxituetako hiztunentzat; filmak egitearen garrantzia hizkuntza gutxituetan eta gaur egun hizkuntza gutxitu eta indigenetako komunitateen erronkak aro global eta digitalean. 60 bat lagun etorri ziren ekitaldira.

Manifiestos sobre la diversidad lingüística liburuaren aurkezpena

"Hizkuntza gutxituetako hiztunen gazi-gozoak / Claroscuros de los y las hablantes de lenguas minorizadas" ekitaldia. Katedrak eta Garabidek mahai-ingurua antolatu zuten Yasnayá Elena Aguilar Gil mexikarraren *Manifiestos sobre la diversidad lingüística* liburuaren aurkezteko. Apirilaren 25ean izan zen, Gasteizko Oihaneder Jauregian.

Aurten, Almadia argitaletxearen eskutik, Aguilarren liburuaren Espainian argitaratzeko edizio berria sortu dute. Garabideri eta Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrari hitzaurrea egiteko eskatu zieten, eta Garabideko presidente Iñaki Martínez de Luna eta Katedrako arduradun Inés García Azkoagak hartu zuten lana bere gain.

Liburuaren aurkezpena ez ezik, mahai-ingurua egin zen hiru gonbidaturekin: Yásnaya Aguilar, egilea; Roberto Awanari, Peruko Amazoniakoa Tupi guaraní eta euskara hizkuntza; eta Asya Zayzaoui, Rifeko tamazight hiztuna.

28 lagun izan ziren aurkezpenean.

Hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria liburuaren aurkezpena

Itziar Idiazabalek editatutako *Linguistic diversity, minority languages and sustainable development* (2022) liburuaren euskarazko itzulpenaren (*Hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza gutxituak eta garapen jasangarria*) aurkezpena egin zen 2023ko apirilaren 24an, Bilboko Bizkaia Aretoan. Aurrez aurre jende gutxi egon zen arren, aurkezpenak 49 bisitaldi izan ditu YouTubean.

5. KATEDRAKIDEEK EMANDAKO IKASTARO ETA HITZALDIAK, ETA KONGRESUETAN AURKEZTUTAKO KOMUNIKAZIOAK

Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Ortega, A. "Navigating through different spaces to increase Basque language use: from safe to other spaces". The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 2023/06/21

Barreña, A. "El proceso de revitalización de la lengua vasca: la escuela como eje vertebrador", II Minga Internacional Tejiendo Educación Propia desde el Corazón de Abya Yala, Cauca (Colombia), 2023/11/8-11

Barreña, A., Bilbao, P. & Salellas, B. "Hizkuntza eskubideak giza eskubide. Aukera bat berdintasunerako?". Oldarraldiaren aurrean. Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain. 2023/10/28.

Barreña, A. "Sobre el proceso de revitalización de la lengua: los casos del ju'gthë'we'sx pthüusenxi y el euskara", II Minga Internacional Tejiendo Educación Propia desde el Corazón de Abya Yala, Cauca (Colombia), 2023/11/8-11

Díaz de Gereñu, L. "La lengua minorizada como motor de cohesión social en una sociedad multilingüe: Los retos de la escuela de inmersión en euskera y en Educación Infantil". VI EDISO International Symposium. Valladolid. 2023/06/29-30.

Díaz de Gereñu, L. "Euskara Eta Hizkuntzen Markoa, Hezkuntza Testuinguru Eleaniztunean Gogoeta Prozesua". Hezkuntza Sailaren Euskara eta Hizkuntzen Foroa. Bilbo. 2023/06/28-30.

Díaz de Guereñu, L.: "Orioko Zaragueta Ikastetxea hizkuntzen trataera bateraturantz". Irakasleen prestakuntza egitasmoa. Orio. 2022/2023. (Ibon Manterolarekin).

Díaz de Gereñu, L. & Idiazabal, I. "D ereduko eskola eleaniztunean, euskara kohesio sozialaren eragile? Haur Hezkuntzaren erronkak irakasleen ikusmiratik", Komunikazioa, Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren Nazioarteko Kongresua (CIISE). Zubiria Etxea, Bilbo. 2023/06/01

Díaz de Gereñu, L., Munarriz, A. & Manterola, I. "Writing a scientific review at university: a tool for developing a text-grammar relationship with first year undergraduate students". 5th Eduling Biannual Meeting Grammar teaching and learning: challenges and opportunities. Bartzelona. 2023/06/29-30.

Garaio, B. "Aisialdia eraldatzeko bidean proposamen batzuk: ariketa, ikerketa eta hizkuntza-lankidetzak". Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak. Lasarte-Oria. 2023/05/11.

Garaio, B. "Anàlisi apreciatiu d'escoles que ensenyen euskera en contextos multilingües". VIII Congrés català de Sociologia i VI de joves en Sociologia, Associació Catalana de Sociologia. 2023/07/12-14

- Garaio, B. "Hizkuntza aniztasuna aztertzen gure testuinguruan". Unamuno BHI. 2023ko urtarrila.
- Garaio, B. "Hizkuntza aniztasuna Gasteizen: ikerketek erakusten digutena". Zurrumurruen aurkako sarea, Gasteizko Udala eta Amekadi Kultur Kooperatiba. 2023ko maiatza.
- Garaio, B. "Ikertzaileak eta osasun mentala: gakoak eta konponbideak". UEU, IkerGazte. Donostia. 2023/05/17-19.
- Garaio, B. "Prekarietate baten kronograma". UEU, Unibertsitatearen barruak eta prekarietatea: Doktoregaion begirada akademiari. Eibar. 2023/06/26.
- Garaio, B. "Ta hegan hasi naiz bapatean". Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak (EHU), doktorego-eskolako mintegiak. 2023ko martxoa.
- Garaio, B. "Zubi bat euskaratik: hizkuntza aniztasuna euskararen biziberritzearekin uztatzen". EHU, magisteritza eskolako hitzaldi sorta. 2023ko apirila.
- García-Azkoaga, I. M. "El cambio de código en las intervenciones orales de parlamentarios bilingües en el Parlamento Vasco", I AESLA Nazioarteko 40. Kongresua. Mérida: 2023/04/26-28
- García-Azkoaga, I. M. "La vinculación entre interculturalidad y ODS: 17+1", Webinar RECI (Ciudades Interculturales). Online: 2023/05/30
- García-Azkoaga, I. M. "Lenguas y ODS". Regional Centre of Expertise (RCE) Basque Country-Navarre I. Batzarra. Zumaia. 2023/06/09
- García-Azkoaga, I. M., "Un legado para seguir aprendiendo en didáctica de las lenguas", Homenagem ao Profesor Joaquim Dolz, Brasilia-Online 2023/03/02
- García-Azkoaga, I. M., Díaz de Gereñu, L., et al. "Elebitasunaren laborategia". CLARIAH-EUS 2. workshopa Europako ikerketa azpiegiturekin lotuta egongo den euskararako ikerketa azpiegitura. San Telmo Museoa, Donostia. 2023/11/23.
- García-Azkoaga, I. M. & Idiazabal, I. & Pérez Báez, G., "The Role of Indigenous and minoritized languages in the attainment of sustainable development goals", 8th International Conference on Language Documentation & Conservation (ICLDC 8), Hawaii-online: 2023/03/02-05
- García-Ruiz, M. "Testuinguru erdaldun baten Familia Hizkuntza Politika eleaniztunak: ikerketaren ondorioak". "Euskal Soziolinguistikan bide berriak II" jardunaldia. Equiling. Bilbo. 2023/07/12.
- García-Ruiz, M., Manterola, I. & Ortega, A. "Basque-centred parental language planning for the upbringing of trilingual children". The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 2023/06/21

- Garcia-Ruiz, M., Manterola, I. & Ortega, A. "Parental ideologies prioritizing Basque and their impact in Multilingual Family Language Policies". 20th AILA World Anniversary Congress. ENS Lyon, Frantzia. 2023/07/17-21.
- Goirigolzarri, J, Amorrortu, E. & Ortega, A. "Agency in the process of becoming an active speaker of Basque". The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 21/06/2023.
- Idiazabal, I. "Garapen Iraunkorrerako 18. helburua, hezkuntza eta hizkuntza gutxituen internazionalizazioa". Lekuan lekuko hizkuntzak unibertsitateko instrukzio-hizkuntza modura. UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatea. 2023/11/23.
- Idiazabal, I. "Hizkuntza eta hezkuntza garapen jasangarrian". UIK. Bizkaia Aretoan UPV/EHU. 2023/07/04-05.
- Idiazabal, I. "Hizkuntza gutxituak erabiltzeko/ikasteko arrazoiak, eta hezkuntzaren aukerak euskararen ikuspuntutik?". UIK. Miramar Jauregia. 2023/07/17-18.
- Idiazabal, I. & Manterola, I. "Enseñanza plurilingüe con lenguas minorizadas: experiencias didácticas del País Vasco". Diàlegs Internacionals sobre Ensenyament Plurilingüe. Universitat d'Alacant, Alacant. 2023/10/18.
- Izkue, A. "Munduko hizkuntzen aniztasunaz hausnartzen". EHUko Kirola eta Hezkuntza fakultatean. 2023/09/16.
- Laita, P. "Bideo-animazioen bikoizketa: hizkuntza indigenen hamarkadarako ekarpen bat". Ama hizkuntzaren Nazioarteko Eguna. Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra. Gasteiz. 2023/02/21.
- Laita, P. "Hizkuntzak biziberritzen munduan zehar: Tilhqot'in-en esperientziatik euskaldunon esperientziara". UPV/EHUko Euskararen soziolinguistika, plangintza eta arautzea irakasgaia. 2023/03/14 (Ibon Manterolarekin)
- Laita, P. "Indigenous language revitalization in British Columbia: Yunesit'in experience". Canadian Embassy to Spain and Andorra. Madrid. 2023/10/19.
- Laita, P. "Munduko hizkuntzak biziberritzen: Tilhqot'in-aren esperientzia". Larraina Euskara Elkarte, Zumaia. 2023/02/15.
- Laita, P. "Nexwejeni naghulchud yenidzen: We are grabbing our voice back". . EÁTEL - We are all connected. First Peoples' House. University of Victoria (UVIC). Victoria, B.C., Kanada. 2023/04/03.
- Laita, P. "Revitalización de lenguas indígenas en la Columbia Británica, Canadá: la experiencia de la comunidad Yuneit'in". Universidad de Alcalá de Henares. Madrid. 2023/10/20.
- Larraz, S. & Diaz-de-Gereñu, L. "Teacher attitudes towards and practice relating to linguistic diversity: How do we revitalize Basque, the local minority language?"

The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 2023/06/21

Manterola, I. "El español en los recursos didácticos plurilingües de los programas de inmersión en euskera. El desarrollo del multilingüismo en contextos educativos con lenguas minorizadas". XIX simposio internacional LASLAB. UPV/EHU, Gasteiz. 2023/09/15.

Manterola, I. "Hizkuntzak biziberritzen munduan zehar: Tilhqot'in-en esperientziatik euskaldunon esperientziara". UPV/EHUko Euskararen soziolinguistika, plangintza eta arautzea irakasgaia. 2023/03/14 (Paula Laitarekin)

Manterola, I. "Orioko Zaragueta Ikastetxea hizkuntzen trataera bateraturantz". Irakasleen prestakuntza egitasmoa. Orio. 2022/2023. (Leire Díaz de Guereñurekin)

Manterola, I. "Soziolinguistika eta euskararen indarberritze prozesua: oinarri teoriko batzuk". Nafarroako hizkuntza teknikarientzako saioa. Atarrabia: 2023/03/01.

Manterola, I. "Zumaiako Herri Eskola hizkuntzen trataera bateraturantz". Irakasleen prestakuntza egitasmoa. 2022-2023 ikasturtea.

Manterola, I. & Aldekoa, A. "Towards an integrated teaching of languages in Basque immersion programs: a study on a trilingual teaching sequence for oral expository skills in Basque, Spanish and English". 20th AILA World Anniversary Congress. ENS Lyon, Frantzia. 2023/07/17-21.

Montroy, M. "A tradução audiovisual para construir pontes de transmissão cultural e ligações sociais intergeracionais em São Tomé e Príncipe", A Tradução na Prática ∞ A Prática da Tradução VIII (TPPT). Universidade de Coimbra, Coimbra. 2023/05/5-6.

Montroy, M. "Cooperación Internacional al Desarrollo, la soledad en los ancianos y la importancia de los talleres lingüísticos en el Proyecto Intergeneracional". Santo Tomé eta Prinzipe (Afrika). 2023ko abuztua.

Montroy, M. "Intergenerational Project in Sao Tome and Principe. Observations on culture as a vehicle for the development of the elderly", 11th Annual International Conference on Sustainable Development (ICSD). Columbia University Campus, New York. 2023/09/18-20.

Montroy M. "Las lenguas originarias en los proyectos de desarrollo. Un caso en Santo Tomé y Príncipe", III CIJIA Congreso Internacional de Jóvenes Investigadoras/es sobre África. Granadako Unibertsitatea, Granada. 2023/09/14-15.

Royles, E., Goirigolzarri-Garaizar, J. et al., PANEL: Exploring the connections between minority languages and sustainable development. The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 2023/06/21

Torralba-Rubinos, M.C. & Garcia-Azkoaga, I.M. "Code-switching in bilingual parliamentary interventions Basque-Spanish" The XIX International Conference on Minority Languages. Trinity University College, Gales. 2023/06/21

Zarraga, A. "Escuelas de adultos. La escuela de adultos como motor y la experiencia vasca-nasa". Minga de formación para la vivencia de las lenguas originarias, Consejo Regional Indígena del Cauca CRIC. Casa Pedagógica PEBI CRIC – Popayán. 2023/07/07-08.

Zarraga, A. "Kolonbiako Nasa herriarekin hizkuntza biziberritzen, Euskara hizkuntza indigenen artean. Elkar indartzeko aliantzak. Euskara, bestela ez gara". Zumaia. 2023/02/15.

Zarraga, A. "Presentación sobre claves de revitalización y derechos lingüísticos". Minga de formación para la vivencia de las lenguas originarias, Consejo Regional Indígena del Cauca CRIC. Casa Pedagógica PEBI CRIC – Popayán. 2023/07/07-08.

6. KATEDRAKO GRADUONDOKO JARDUERAK

Master eta doktorego programen antolaketa eta parte-hartzea

Masterraren edo doktorego-programaren izenburua	Katedrakide irakasle arduraduna	Erakunde antolatzailea	Orduak	Erakundea	Non eman den
Ingurmena, Iraunkortasuna eta GIH berezko masterra: Hizkuntzak eta Garapen Jasangarria	Ines García Azkoaga	Euskal Herriko Unibertsitatea	3 ordu	UPV/EHU	Leioako Campusa, Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Euskal Linguistika eta Filologia Masterra: Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak I: hizkuntza plangintza eta soziolinguistika.	Ibon Manterola	Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. UPV/EHU	3 ECTS	UPV/EHU	Vitoria-Gasteiz, Letren Fakultatea.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra: Hizkuntz ukipena	Ibon Manterola	Euskal Herriko Unibertsitatea	3 ECTS	UPV/EHU	Vitoria-Gasteiz. Kirol eta Hezkuntza Fakultatea.
Master 2 Etudes basques: Soziolinguistika	Ibon Manterola	Université Bordeaux Montaigne	1,2 ECTS	UPV/EHU	Baiona, Letren Fakultatea.
<i>Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia / Hizkuntzalaritza Aplikatuaren Oinarriak II: Eleaniztasuna eta Irakaskuntza</i>	Ines García Azkoaga & Leire Diaz de Gereñu	Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila	3 ECTS	UPV/EHU	Gasteiz. Letren Fakultatea (EHU)
<i>Euskal Ikasketak MASTERRA</i> Irakasgaia: “Euskara ardatz duen hezkuntza eleaniztunerako oinarri didaktikoak”	Leire Diaz de Gereñu	Université Bordeaux-Montaigne	1,5 ECTS	UPV/EHU	Campus de l'UPPA, UFR pluridisciplinaire (Baiona)
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra: Irakasgaia: “Hizkuntzaren Bariazioa eta Barietateak”	Leire Diaz de Gereñu	Hezkuntza, filosofia eta antropologia fakultatea	3 ECTS	UPV/EHU	Kirol eta Hezkuntza Fakultatea (EHU)
Hizkuntzen Kudeaketa Aro Globalean: Berrikuntza Gakoak Euskararen Biziberritzean	Beñat Garaio	Euskal Herriko Unibertsitatea		UPV/EHU	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)

Doktorego tesiaren defentsa:

- Maite Garcia Ruiz: “Testuinguru erdalduneko D ereduko ikastola bateko gurasoen familia hizkuntza-politika eleaniztunak” (UPV/EHU). Zuzendariak: Ibon Manterola eta Ane Ortega (UPV/EHU). (Cum laude kalifikazioa)

Ikerketa-proiektuetan parte haratzea:

Laita, P.

- Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa Beka 2023. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Euskaltzaindia. Ikerketa: Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak

Beste proiektu batzuk

Garaio, B.

- “Euskararen Babesgune ez-perfektuak eraikitzen”, Faktoria, Badalab eta Beñat Garaio antolatua. Azken hori koordinatzailea ere.
- “HIGA, Hizkuntza Gutxituetako Hitzun Gazteen Topaketa”, Gasteizko Udalaren laguntzaz antolatua. Aurretik azaldu dugun moduan, uztailaren 17tik 21era Hizkuntza gutxituetako hitzun gazteen 4. topaketa egin zen Gasteizen. Topaketa hauen antolatzailea Beñat Garaio katedrakidea izan zen. Guztira 75 pertsonak parte hartu zuten eta guztira 60 hizkuntza ordezkatu zituzten. Topaketen egitaraua oso anitza izan zen, eta, MHO UNESCO Katedratik bizkoizketa-tailerra antolatzeko aukera izan genuen. Koordinatzailea.

7. KATEDRAREN PRESENTZIA HEDABIDEETAN

Noiz	Nor / Zer	Zer / Gaia	Non
2023/02/01	Beñat Garaio	Euskarazko tesien VIII. Koldo Mitxelena Saria	Berria
2023/03/07	Beñat Garaio	HIGARI buruzko albistea	Berria
2023/03/23	Paula Laita	Kanadako hizkuntza indigenei buruzko elkarrizketa	Guaixe
2023/04/17	Paula Laita	Tsilhqot'in hizkuntzari buruzko elkarrizketa	Euskadi Irratia
2023/05/01	Katedra	Yasnaya E. Aguilarren liburuaren aurkezpena	Naiz
2023/05/02	Beñat Garaio	Laboral Kutxa Eusko Ikaskuntza Gazte Saria	EITB, El Diario Vasco, El Correo
2023/07/12	Beñat Garaio	Euskarazko aisialdiari buruzko elkarrizketa. Kazetaria: Arantxa Iraola	Berria
2023/07/23	Anik Nandi	Hizkuntza-politikei buruzko elkarrizketa	Argia
2023/08/08	Beñat Garaio	HIGARI buruzko erreportajea	Naiz
2023/09/05	Itziar Idiazabal	Carme Junyent hizkuntzailariari agurra	Berria
2023/09/18	Mikel Mendizabal	Mikel Mendizabalek koordinatutako <i>Euskara orain. Eraginkortasuna helburu</i> liburuaren aurkezpena	El diario vasco
2023/09/14	Itziar Idiazabal	Hezkuntzaren garrantzia hizkuntza gutxituen irakaskuntzan	Berria
2023/10/13	Maite Garcia-Ruiz	Haurren Aurrean Helduok Heldu ekimena	Hiruka aldizkaria
2023/11/08	Itziar Idiazabal	Euskal ikasteredu elebidunak	Berria
2023/11/27	Katedra	"Hizkuntza indigenak Ama Lurra Zaintzen" erakusketa	Campus aldizkaria
2023/12/13	Paula Laita	Pello Apezetxea bekaren banaketa	Bortziriak Erran Diario Vasco

SARE SOZIALETAN AIPAMENAK

- European Centre for Minority Issues (ECMI) (2023/06/15). MHOUK eta ECMIk egindako bilera:
<https://twitter.com/ECMIFlensburg/status/1669259599268966401>
- HIGA (2023/07/03). HIGako Batzorde Akademikoa:
<https://twitter.com/higagasteiz/status/1675865359507759106>
- HIGA (2023/07/20). HIGAn antolatutako bikoizketa-tailerra:
<https://twitter.com/higagasteiz/status/1681982010397532162> ;
<https://twitter.com/higagasteiz/status/1681953549343752194>
- EHUKultura (2023/11/27). "Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen" erakusketa Donostian:
<https://twitter.com/EHUKultura/status/1729064865808212441>
- HABE liburutegia (2023/12/11). "Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen" liburuxkaren argitalpenari buruzkoa:
<https://twitter.com/HabeLiburutegia/status/1734146311597818349>

8. KATEDRAKIDEEK JASOTAKO SARIAK ETA AITORTZAK

Beñat Garaio:

- Euskarazko tesien VIII. Koldo Mitxelena sariak (Euskaltzaindia eta EHU), Artearen eta Giza Zientzien arloan: *Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai: D ereduko Gasteizko bi eskolaren indarguneak identifikatzen.* Zuzendariak: Leire Diaz de Gereñu & Itziar Idiazabal.
- Eusko Ikaskuntzako Laboral Kutxa Gazte Saria *Kia ora, takatpui: moriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen* proiektuagatik

9. KATEDRAKIDEEN ARGITALPENAK

LIBURUAK

Barreña, A.; Cometa, S. D.; Mendizabal, M. (eds.), (2023). *Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen*. Antza inprimategia. Bigarren argitalpena.

KAPITULUAK LIBURUETAN

Diaz de Gereñu, L.; Garcia-Azkoaga, I.M (2023). "L'art du conte: la répétition de la dénomination du personnage dans la construction textuelle". Sandrine Bédouret-Larraburu, Christine Copy et Raluca Nita (dir.): *Lexique et frontières de genres*, Presses Universitaires de Pau et des Pays de l'Adour (PU Pau). 135-151. ISBN: 978-2-35311-150-3.

Garcia-Azkoaga, I.-M. (2023). "De los manuales escolares a los escritos de los alumnos: análisis de la cohesión en textos explicativos escritos". In L. Graça, M. Gonçalves, L. Bueno, E. Lousada (coord.), *Da didáctica de língua(s) ao seu ensino*. Brasil: Editora Pontes (ISBN: 978-65-5637-868-8).

Garcia-Azkoaga, I.-M. (2023). "Euskararen irakaskuntzaren garabidean". In David Lindemann (arg.): *Miren Azkarateri esker onez*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 121-134. ISBN: 978-84-1319-537-7.

Martinez de Luna, I. & Garcia-Azkoaga, I.-M. (2023). "Prólogo a la edición española". In Yasnaya Elena Aguilar Gil: *AA: Manifiestos sobre la diversidad lingüística*. Madril: Almadía, 11-16. ISBN: 987-84-126003-2-2.

Nandi, A., Garcia-Ruiz, M. & Manterola, I. (2023). "Reclaiming Voice through Family Language Policies: Parental (Socio)linguistic Citizenship in Castilian-Spanish Dominated Multilingual Settings". In J. Gspandl, C. Korb, A. Heiling & E.J. Erling (Ed.), *The Power of Voice in Transforming Multilingual Societies*. Bristol: Multilingual Matters.

ARTIKULUAK ALDIZKARIETAN

Garaio, B (2023). "Beñat Garaio Mendizabalen tesiaren laburpena". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 124. zenbakia, 125-126.

Garaio, B. eta Penman, R. (2022). "La solidaridad vasca en la revitalización lingüística mapuche y quechua", in *Onomázein*, 58,168 – 190 or. (2023an argitaratua).

Garcia-Azkoaga, I.-M. (2023). "Testu-generoa: kultura- eta hizkuntza-aniztasuna gelan lantzeko lanabesa", *Lapurdum*, XXIV, tome 2, 157-171. (ISBN: 978-2-9590077-1-2) (ISSN: 1273-3830).

Garcia-Azkoaga, I.-M.; Idiazabal, I.; Larringan, L.-M. (2023). "Cuando el niño cuenta el mismo cuento a los 5, 8 y 11 años. Diferencias de las habilidades narrativas".

Calidoscopio, v. 21(1): Número temático en homenaje a Joaquim Dolz. [ISSN 2177-6202] Unisinos - DOI: 10.4013/cld.2023.211.07.

Garcia-Azkoaga, I.-M.; Idiazabal, I.; Larringan, L.-M. (2023). "Evolución de la narración oral en euskara. Estudio longitudinal de un caso y aportaciones para la didáctica". *Calidoscopio*. 21(1) 124-143 janeiro-abril 2023, ISSN 2177-6202 Unisinos - doi: 10.4013/cld.2023.211.07.

Garcia-Azkoaga, I.-M.; Idiazabal, I.; Larringan, L.-M. (in press). "La formación didáctica del profesorado de lenguas". In Sandrine Aebi (Ed.) *Florilège en honneur de Joaquim Dolz-Mestre*.

García-Azkoaga, I.M. & Montory, M. (in press). "Creencias y actitudes sobre la utilización del forro em un trabajo colaborativo entre jóvenes y ancianos". *Living languages*.

Idiazabal, I (in press). "Euskal elebitasunetik eleaniztasunera, irakasleentzat erronka zahar eta berriak". *BAM 75 urte*.

Idiazabal, I. & Diaz de Gereñu, L. & Garaio, B. (2023). "Euskara eleaniztasunean ikasten: autozuzenketak haurren ipuin-kontaktetan". *Argia Olçomendi (Ed.) Lapurdum XXIV*, 2023, 183-197.

Laita, P., Uranga, B & Basurto, A. (2023). "1950-1970eko etorkinen integrazio soziolinguistikoa Altzan", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 128 (3), 115-140.

Manterola, I., & Aldekoa, A. (2023). Expérimentation d'une séquence didactique trilingue en contexte immersif en basque: des éléments pour un dialogue avec la règle du sept de la sociodidactique des langues. *Calidoscópico*, 21(1), 21-41. <https://doi.org/10.4013/cld.2023.211.02>

Manterola, I., Rodriguez-Aguirre, A., Sarasua, M. & Elosegui, R. (2023). Seaskako ikastoletako murgilketa ereduan hizkuntzen trataera bateraturantz. In Olçomendy, A., Etxeberria, U., Lascano, B. & Elizalde, A. (arg.), *Lapurdum*, 2023 XXIV, *Jone Casenaveren omenez. Mélanges offerts à Jon Casenave*. 2. Tomoa. 235-251 or.

Montroy, M. (in press). "Dubbing as a tool for the integration of elders and language transmission" *Parallèles*.

Nandi, A., Kasares, P. & Manterola, I. (2023). "Countering government's low-intensity language policies on the ground: family language policies in Castilian-Spanish dominated Galicia and Navarre". *Critical Inquiry in Language Studies* 20. <https://doi.org/10.1080/15427587.2023.2247510>